

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxa Bikandi Basterretxea

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1927-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1927an jaio zen Gernika-Lumoko [Errenteria](#) auzoan (sasoi hartan Ajangiz). Ama Lumoko [Asketa](#)koa zuen eta aita Errenteriakoa bertakoa. 7 neba-arrebatatik laugarrena da. Karmeldarren eskolara joan zen umetan; bonbardaketa ostean gutxi joan zen laster hasi baitzen umeak jagoten. Bonbardaketan etxe barik gelditzerakoan alde egin zuten, eta alde batetik bestera ibili ziren Kaltzada egoitza aurreko etxeetako bat egokitu arte: Deustutik Santanderrera; handik, itsasontziz Frantziara; bueltan amaren gurasoengana, Asketara... 17 urtegaz [Dalian](#) hasi zen lanean eta bertan aritu zen zortzi urtez Kortezubiko [Anastasio Gondragaz](#) ezkondu arte.

Zintak

GER-006

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-03-02
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Gerratik ihesi, Deustura, Santanderrera eta Frantziara

- **Erref:** GER-006/002
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketa izan zenean, Lumora bidean joan ziren zazpi senideak eta aita-amak. Milizianoek esan zieten han lubakiak zeudela eta Deustura joan ziren orduan. Han ortuan zulo bat eginda zeukaten eta hegazkinak zetozenean,

zuloan sartu eta egur batzuekin tapatzen ziren. Han enbarazu egiten zutenez, ama eta zazpi umeak Santanderrera joan ziren. Aita bertan geratu zen lanean.

2. Frantziatik etxera bueltan

- **Erref:** GER-006/003
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Frantziara iritsi zirenean, ume txikiena elgorriak jota zegoen eta ospitalera eramán zuten amarekin batera. Handik Espainiara itzuli zirenean, Francok egin zien harrera. Etxerik ez eta Lumora joan ziren amaren gurasoen etxera.

3. Etxerik gabe, lantzean etxe batean bizi behar

- **Erref:** GER-006/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Lumotik Gernikara etorri ziren eta lantzean etxe batean bizi izan ziren. Estatuak etxebizitzak egin zituenean, beraien etxea lortu zuten.

4. Bonbardaketa eguna

- **Erref:** GER-006/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketa egunean Tabernaberriko zubiaren azpian egon ziren. Auzoan pikondo bat zegoen eta haren azpira batu ziren. Milizianoek abisua eman zieten alde egiteko. Hegazkin asko eta oso baxu pasatzen ziren.

5. Tristea da gerra

- **Erref:** GER-006/006
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Goizaldean pasatu zuten Gernika eta dena sutan zegoen. Milizianoen kamioi bat geratu eta Deustura joan ziren. Gerra tristea dela dio, ezin dela azaldu dio. Jendea zoratu egiten dela aipatzen du. Gerraren ondorioz etxerik gabe geratzea oso gogorra izan zen, beti enbarazu egiten zutelako.

6. Gerraostean gaztainak batzera

- **Erref:** GER-006/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Laguntza jaso zuten itzuli zirenean baina ez zen asko zazpi senide hazteko. Basora joaten ziren gaztainak batzera eta egosita jaten zituzten gero.

7. Umezain eta Dalia lantegian beharreen

- **Erref:** GER-006/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:11:39. **Bukatu:** 00:13:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Bonbardaketa ostean eskolara hasi zen berriz baina ez zuen astirik izaten, umezain egin behar izaten zuen eta. Diru pixka bat eta ogia txokolatearekin ematen zioten ordainetan. Hamazazpi urterekin Dalia lantegian hasi zen. Han ezagutu zuten elkar senar-emazteek. Zortzi urte egin zituen lanean, ezkondu artean.

8. Karmelitetan ikasten eta lanean

- **Erref:** GER-006/011
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Anastasio Kortezubiko eskolan ibili zen, Segundo Juez irakaslearekin. Hemengo maistrak lanik gabe utzi zituzten gerra ostean. Karmelitetan ibili zen Kontxa, hala zegokiolako. Jaio zenean, Erreteria Ajangiz zen. Ordaintzen ez zutenez, garbiketa-lanak egin behar izaten zituzten.

9. Gogorak ziren mojak eskolan

- **Erref:** GER-006/012
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Lehen mojek kapatxekin lo egiten zuten. Beheko bodegetan kapatxak askatzen ibiltzen ziren, mojek koltxoietarako erabil zitzaten. Gogorak omen ziren mojak. Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Bere amak ez zekien erdaraz eta berritsua izanik, ezin izaten zuen kalean hitz egin. Euskaraz egitearren zaplaztekoak jasotzen zituztenak ere izan ziren.

10. Ikasle aberats eta diru gutxikoen arteko aldea

- **Erref:** GER-006/013
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:21:33. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojarik onena Hermana Eusebia izan omen zen. Eskolan gorengo pisura joan behar izaten zuten diru gutxi zutenek eta beheko solairuan egoten ziren dirudunak. Elizan ere, aberatsak erdian egoten ziren eta besteak bazterretan. Mojek dirua eskatzen zieten eskolan txinatarrentzat eta amak haserre egiten zien seme-alabei, berak dirurik ez zeukala eta.

11. Kristau aberats eta diru gutxikoen arteko aldea

- **Erref:** GER-006/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Konfesatzera etortzen zitzaizkien bi apaiz, bata aberatsentzat eta bestea dirurik ez zutenentzat. Ez zuten bekatu handirik izaten. Aberatsek jaunartzea Karmelitetan egiten zuten eta diru gutxi zutenek Andra Mari elizan.

12. Dirudunentzat ikasketa hobeak

- **Erref:** GER-006/015
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:25:16. **Bukatu:** 00:27:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Diru gutxi zutenen etxeetakoek ez zuten asti handirik izaten eskolara joateko eta hala ere, mojek lanean jartzen zituzten. Dirudunek asti gehiago izaten zuten eta haiei eskola gehiago ematen zieten. Olgetan aritzen ziren: prima segundaka, tabakaz, sokiegaz...

13. Txopinke eta prima segundaka jolasean

- **Erref:** GER-006/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:27:22. **Bukatu:** 00:28:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txopinke, ezkutaketan jolastea izaten zen. Prima segundaka jolasa zela izaten zen kontatzen du.

14. Babeslekuak, kartzelak, ospitaleak non zeuden

- **Erref:** GER-006/021
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketan iturriaren azpian sartu zirenak zela hil ziren kontatzen dute. Babeslekuak non zeuden kontatzen du. Neska asko bortxatu zituztela aipatzen dute. Moja eta fraideen monastegi eta komentuetan kuartelak, kartzelak eta ospitaleak jarri zituzten. Anastasiok zuloak egin behar izan zituen jendea lurperatzeko. Gerrarik ez etortzea espero du Kontxak. Bakerik txarrena hobe delako gerrarik onena baino.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com